

**ARABA OSIKO ERAIKIN BERRIRA BISITA  
VISITA AL NUEVO EDIFICIO DE LA OSI ARABA**

2021-12-22 Vitoria-Gasteiz 22-12-2021

*Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari*

Sailburua, Osasun Sailaren, Osakidetzaren eta Txagorritxu Ospitalaren arduradunok eta profesionalok, jaun andreok, egun on eta mila esker baita guztioei gurekin izateagatik gaurko egun honetan.

Arabako Unibertsitate Ospitaleko zerbitzu orokorren eraikina bisitatu dugu.

Guztira 104 milioi euro inbertitu ditugu Ospitalea gaurkotzeko eta hobetzeko. Abangoardiako teknologia eta espazio berriak ditugu. Inbertsio horren bidez 200.000 pertsona baino gehiagori zerbitzuaren kalitatea hobetzeko konpromisoa bete dugu.

Hemos visitado el edificio de servicios generales del Hospital Universitario de Araba. Hemos invertido 104 millones de euros en la mejora y modernización de este Hospital que ofrece su servicio a más de 200.000 personas.

Este nuevo edificio viene a completar la primera fase, de un total de tres, del Plan aprobado tras la integración de los Hospitales Txagorritxu y Santiago.

Nuestro objetivo es mejorar la calidad del servicio a todas las personas, con una infraestructura más accesible, moderna y avanzada. Contamos con 25.000 metros cuadrados en 6 plantas con:

- Servicio de urgencias pediátricas;
- Servicio de urgencias;
- Bloque obstétrico;
- Unidad neonatal y de cuidados intermedios de pediatría;
- Bloque quirúrgico; y
- Mejora de los servicios hospitalarios para pacientes con patologías complejas.

Además del esfuerzo especial que la pandemia está suponiendo al Departamento y a Osakidetza, el Servicio Vasco de Salud ha seguido trabajando por la mejora diaria de la calidad del servicio y, también, la mejora de las instalaciones y equipamientos. El edificio que hoy hemos visitado es buen ejemplo de ello.

Pandemia dela-eta oso urte berezia bizi izan dugu eta bizitzen ari gara.

Alde batetik, gogoratu nahi dut urte hau Murgiako osasun-zentro berria irekitzen hasi genuela. Lehen mailako arreta hobetzen ari den zentroa da. Orain, urtea amaitzeko, Arabako Unibertsitate Ospitaleko zerbitzu orokorren eraikina jarri dugu abian.

Beste alde batetik, gogoratu nahi dut, halaber, Osakidetzaren profesional guztien lana eskertuz eta aitortuz hasi genuela urtea eta amaitu ere horrela egin nahi dugula.

Urte luzea izan da eta, orain, birusaren aurkako borrokan une erabakigarrian gaude. Zuen ahalegina eta lana eskertu nahi dugu eta gizartearen aitortpena helarazi nahi dizuegu.

Horrekin batera, zuen eskakizunari ere erantzuna eman nahi diogu. Horrela, gizarteari mezu argi bat helarazteko eskatu diguzue: "Dena errazagoa izango da indarrean dauden neurriak eta proposatutako gomendioak denok betetzen baditugu".

Este año ha sido muy especial por la pandemia.

Recuerdo que comenzamos el año inaugurando el nuevo Centro de salud de Murgia y lo terminamos con la puesta en marcha del edificio de servicios generales del Hospital Universitario de Araba. Recuerdo también, que iniciamos el año, y lo culminamos, agradeciendo la labor de todas y todos los profesionales de Osakidetza.

Nos encontramos en un momento clave de la lucha contra el virus. Agradecemos vuestra labor y entrega. Os transmitimos el reconocimiento de la sociedad vasca. Escuchamos y atendemos también vuestra solicitud para que traslademos un claro mensaje a la sociedad: "Todo será más fácil si todas y todos cumplimos las medidas en vigor y todas las recomendaciones."

Pertsona guztien osasuna bermatzea da gure konpromiso nagusia.

Gure esker ona Osakidetzari eta Osasun Sailari. Egunero lortzen duzue herritarrei eskaintzen diegun zerbitzua geroz eta hurbilagoa eta eraginkorragoa izatea. Hemen zaudeten guztioi eskerririk asko!

Bide batez, garai honetan esaten da bai, Gabon eguberri zoriontsuak eta urte berri ona, baina nik horrekin batera esan nahi dut: osasuna.